

Lawrence Lessig

«Copyrighta egungo gara

Lawrence Lessig Creative Commons lizentzien sortzailea Euskal Herrian izan berri da Remix liburua aurkezten, Arabako Parke Teknologikoan. Agenda oso estua duen arren, ARGIAK elkarrizketa laburra egiteko aukera izan du.

ELISABETH POMBO ETA LANDER ARBELAITZ

Argazkia: Lander Arbelaiz

LESSIG ABOKATUA DA eta zuzenbidea irakas-
ten du Stanford Unibertsitatean. Sormen
askatasuna maite du. Horregatik sortu zuen
Creative Commons ekimena, informazioaren
eta ezagutzaren partekatzeari jabetza eskubi-
deek ezartzen dizkieten mugak gainditu
asmoz. Hala ere, garbi adierazten du ez dago-
ela Copyright-aren aurka; are gehiago, sorm-
mena bultzatzeko tresna garrantzitsua dela
iruditzen zaio. Baina euskalduna bezalako
kultura txiki batean Creative Commons
lizentziek eta software libreak ekarri ditzake-
ten abantailak azpimarratu ditu.

**Zer onura ekartzen dizkiote Creative Com-
mons lizentziek euskalduna bezalako kultura
txiki bati?**

Jendeari askatasuna ematen dio, adibidez
lanak euskarara itzultzeko. Marrazki bizidu-
nei eta bideoei euskarazko azpтитuluak jar-
tzen dizkieten webgune batera bideratu
ninduten orain gutxi [Luistxo Fernandezek
sortutako *Azpтитuluak euskaraz* ekimenari
buruz ari da]. Horrek dudarik gabe euskara-
ren hazkundera laguntzen du, hurrengo
belaunaldiaren aurrean indartsu ager dadin.
Copyrightarekin, jabearen baimenik ez
badugu, ezin da horrelakorik egin ez tekni-
koki ezta legalki ere. Copyleft lizentziap-
ean lan gehiago baleude, ez legoke arazorik
Non-Commercial lizentziap-ean itzulpenak
egiteko. Honela, hizkuntzari bultzada han-
dia emango litzaioke.

**Bi pertsonak ideia bera aldi berean sor dezake-
tela onartzen den unetik, jabetzaren kontzeptu-
rik ez dagoela esan genezake. Zentzu horretan
Copyrightak desagertu egin beharko luke?**

Lehenik eta behin, Copyrightak ez du ideia
erregulatzea bilatzen, adierazpen bat erre-
gulatzen du. Eta bai, zuzen zaude, bi per-



ietara egokitu behar da»

CC lizentziek jabetza intelektuala legitimatzen dute

Egileen esku dago beraien lanak nola zabaltzea. Creative Commons (CC) lizentziak Copyrighta baino malguagoak dira, baina biek aitortzen dute "jabetza" badagoela eta berau babesteko bideak arautzen dituzte. Horixe da hain zuzen ere Lawrence Lessigi egin izan zaion kritika, jabetza intelektuala modu leunean bada ere, indartu egiten duela.

Creative Commons lizentziak ezaugarri desberdinak batuz sortzen dira. Honako hauek dira ezaugarri horiek:

- ✓ **Aitortu** (*Attribution*): Iturriak aipatu behar dira.
- ✓ **EzKomertziala** (*NonCommercial*): Ezin da etekin ekonomikorik lortu.
- ✓ **LanEratorririkGabe** (*NoDerivativeWorks* edo *NoDerivs*): Edukiak elkartrukatzen uzten du, baina inongo aldaketarik egin gabe.
- ✓ **PartekatuBerdin** (*ShareAlike*): Jatorrizko lizentzia berdinarekin erabili behar da.

tsonak aldi berean adierazpen berdina sor dezakete. Baina uste dugu Copyrighta sormena bultzatzeko tresna garrantzitsua izaten jarraitzen duela. Horrek ez du esan sortzen den guztia Copyright lizentziapean sortu behar denik. Esan nahi dena da Copyright sistemarik ez bagenu, kulturarentzat garrantzitsuak diren lan gutxiago sortuko liratekeela. Beraz, uste dugu Copyrighta garrantzitsua dela, baina egungo garaietara egokitu behar dela, eta hori da gure proiektuaren helburua.

Eusko Jaurlaritzari Windows sistema eragilearen itzulpena finantzatzea kritikatu izan zaio. Uste duzu administrazioek software librea sustatu beharko luketela?

Bai, software librea sustatu beharko lukete. Ez lukete arrazoi politikoengatik egin behar, baizik eta euskalduna bezalako kultura batenzat software librea hobea delako. Softwarea ez bada jabetuna, errazago molda, itzuli eta gara daiteke, kodea begiratu baitezakegu eta nola egin dagoen ikusi. Windows bezalako softwarea bada, jabearen [Windowsen kasuan Microsoft] beraren baimena beharrezkoa da horrelako moldaketak egiteko. Garrantzi handiko arrazoi publikoak daude administrazioek software librea bultzatzea, eta Euskal Herrikoak bezalako administrazioek are gehiago.

Sistema libre batean, zer eredu ekonomiko litzateke posible?

Garrantzi handiko arrazoi publikoak daude administrazioek software librea bultzatzea, eta Euskal Herriko administrazioek are gehiago

Gaur egungo zenbait webgune begiratu besterik ez dago. Adibidez, *Facebook*, *Flickr* edo *Second Life*. Jendearen partekatzearen gainean eraikitako ekonomiak dira. Inor ez da edukiaren jabetza eskusiboaz ari bertan, baizik eta jendeak partekatu egiten ditu bere gauzak. Beraz, Hollywoodek zabaltzen duen mezua, dena oso kontrolatua edukitzea etekinak lortzeko, ez da egia. Jendea diru asko egiten ari da kontrol askoz ere gutxiagorekin. Hori izango da etorkizuneko eredu.

Eta amaitzeko, esango zenizkiguke Internet munduko hiru izen eta horiek hautatu izanaren arrazoia?

Lehenik eta behin Richard Stallman. Berak ezarri zuen askatasunaren ekonomia eta bide batez software librearen balioak finkatu zituen, kultura librea indartu zuen. Bigarren izena Linus Torvalds da [Linux sistema eragilearen sortzailea]. Bera izan zen Stallmanek hasitakoarekin bateratu ziren mugimendu sozialak sortu zituena. Eta azkenik, pertsona bakarra hautatu beharrean, Stanford unibertsitatetik atera zen ikasle belau-naldi bat aipatuko dut, Yahoo eta Google sortu zutenak. Belaunaldi hori ikaragarritzko negozioak sortzeko gai izan da. Mundua aldatu dutela uste dut, horiek dira benetako heroia. ■

www.argia.com/bideoak
helbidean, elkarriketaren bideoa.